

BIHOTZ-GOXAGARRIAK

1. MAIXU, NUN BIZI ZARA?

1. Maixu, nun bizi zara
arren esaidazu,
Zu ikusi gurarik
egarriz naukazu.
Ezin zaitut aurkitu
lagun egidazu,
orduak bai pozik gu
biok ni eta Zu.

2. Egin genduan biok
behin hartuemonan
ez jat sekulan ahaztu
Zurekin egona.
Zeuk eginan naz, Jesus,
Zeu baizen sakona,
elkarbizitza da
bion zoriona.

2. AITA, ZURE ESKUETAN IZTEN DOT NIRE BIZIA

1. Aita zure eskuetan (Uso zuria)
lasai bizi naz benetan,
Zu zara nire babes ta indar
nire makal orduetan.
Zutaz ahaztuten banaz ere, Zu
ni zaintzen zagoz han bertan.

2. Zugaran uste on jarriarik
ez da holako grazirik.
Aita ta Ama zaitugula Zu
Jesusek erakutsirik,
orain ta gero iraungo dogu
zure ondoan bizirik.

3. IRAUN NIGAN, NIK ZUOKAN IRAUNGO DOT ETA

1. Iraun egizu beti
Nirekin batean / maitasun betean;
Ni zuekin batean
nagoan antzean.
Laguntzeko prest nago
Zuk dei egitean,
Zeu zaindu gura zaitut
pozik ta bakean;
arren, ez naizu euki
alperrik atean.

2. Nigan irauten dozun
ta bizi zarana / aixkide laztana,
ondo dakizu, Jesus,
behar zaitudana.
Zurea naz osorik
neu ta daukadana
Zu barik dana hutsa,
alperrik da dana;
ni salbatzea da Aitak
emondako lana.

4. MAIXU, ZEIN EDERTO GAGOZAN HEMEN!

1. Zein ederto gagozan
hemen alkarrekin,
Jesus erdian dala
hobeto ezin!
Alde batetik bake,
bestetik atsegin,
Zu lagun zarala nok
atzera eragin?
Harro eta zikin / munduari muxin
Barri Onari ekin / gogotik ahalegin.
Eskerrak hau Taborren
nebala jakin!
Kalbarioan ere
ni Jesusekin.

2. Zoriongunetxo bat
horixe da Tabor,
Tabor edonun dago
Jesus bada hor.
Munduko bidea da
berez aldatz gogor,
bakarri igotzeko
ez da gauza inor.
Oi Jesus maitakor / poz-iturri jator,
bihotzean borbor / ezin da agor;
basamortuan zehar
egarriz nator,
Zu nirekin bazagoz
nahi dana betor!

5. HONA HEMEN JAUNAREN MIRABEA

1. Hona hemen ni Jainko Jaunaren
mirabe zerbitzaria,
holakoxea izan zan beti
Nazaretoko Maria.
Bizian Gora lagun/ ze aukera daukagun
egiteko miraria;
Hemen Amaren antza hartu ta
gero zeruan saria.

2. Bizitzan zehar txandaka dator
gezia eta gazia,
zelan jokatu Bizian Goran
dogu ondo ikasia:
Guk geuretik ahalegin / ta otoitzari
ekin,
betor Jaunaren grazia.
Holan jokatuz ziur daukagu
txapela irabazia.

6. JAUNA, IKUSI DAGIDALA

1. Itsu gaixoak bezala,
Jauna, ikusi daidala;
zer dan barruko manina eta
kanpoko azala.
Ez dala eta badala
zenbat guzur astrapala!
Zurekin dana ona da eta
Zu barik hutsala.

2. Dana nahi dogu ikusi
bada gaur nok erakutsi,
ez gaitetzala txantxetan hasi:
"Ikusi makusi"
Guzur trabapatan ez jausi
egia bedi nagusi;
"Neu naz egia" dinosku eta
jarraitu Jesusi.

3. Sinismenaren distira / sarturik
bihotz erdira,
gauza guztiak diran bestean / hor
agertzen dira.
Jesusgana erretira / ta jarri zaitetz
begira;
orduan gauzak hartuko dozuz / behar
dan neurrira.

7. JAUNA, EMOIDAZU UR HORRETATIK EDATEN

1. Bere bihotz hondoan nor ez da
egarri?
Eta iturri bila / gabiltz estularri.
Ur zikinetik zurrut / egin dogu sarri,
zure ura ez dana / jaku kaltegarri;
Zeuk zure iturrirantz / Jesus,
erakarri.

8. JAUNA, SALBAU GAGIZUZ, HONDORA GOAZ ETA

*Jauna, Jauna, ("Maite, Maite")
zatoz laster gu salbatzen
Jauna, Jauna, eza gaizuz itzi
hondatzen.*

1. Bizitzako itsasoan
dana orru ta olatu,
galdu gordean gabiltza
ez zimendu, ez teilatu.

9. GELDITU ZAITEZ GUGAZ, BERANDU DA TA

*Jainko Aitak gugana
bialdu zaituana,
ziur gagoz zarana
guretzat dana (Hona Bildots)*

1. Gure argi zara / gau ilunean
eta gure indar / zeru-bidean.

10. EGIN BEDI NIGAN ZUK DINOZUNEZ

1. Zure Semeak erakutsita
hau da nire sinismena:
Jaungoiko Jauna, Zeu zaitudala
Aita-Amarik onena.

2. Gu pozik bizitzea / da zure ardura,
Aitak horretarako / bialdu mundura.
Zure uretik, Jesus, / emon
zenbat-gura,
ibili gaitezala / zure agindura;
eta edan daigula / Jesus, zure ura.

2. Gau ilunean galduta
ez ilargi, ez izarrik,
zatoz Zeu gure txalupan,
ez gaizuz itzi bakarrik.
3. Bizitzara Zeuk deituta
behin sortu ginan mundura,
Zeuk lagun eiguzu, Jesus,
heldu gaitezcan portura.

2. Zu bakardadean / gure Laguna,
Zugan dogu, Jesus, / askatasuna.

3. Zure jarrai gatoz / orain munduan,
Zugaz egoteko / gero zeruan.

Nigan bedi betea / zure borondatea,
Santu zure Izena.
Pozik autortzen dot zaitudala
hasiera ta azkena.

2. Zure dohaia dot bihotzean
Zuganako maitasuna,
ziur nago ta neuk baino ere
Zuk maiteago nozuna.
Nigan bedi betea / zure borondatea,
egin nigna nahi dozuna.
Orain ta beti hau izango da
nire zorientasuna.

3. Zuk bedeinkatu nozu bizitzan /
gaztaro eta zahartzaro,
nire gainera ixuri dozu /
grazi-laguntza oparo.

Nigan bedi betea / zure borondatea,
ez dot besterik itxaro / Gero Zurekin
izango nozu
Zeu zaran baizen luzaro.

11. JAUNA, NAHI NADOZU, GARBITU NAIKEZU

1. - Lagun, zer nahi dozu Nik
zuri egitea?

- Jesus, Zeuk nahi badozu,
nahi dot ikustea.
- Nahiko da ahal dodala
zeuk hau sinistea.
- Bai, sinisten dot, Jauna,
hau da suertea!

2. - Zergaitik dozue hau
Nigana ekarri?

- Jesus, ikusi zelan
dagoan elbarri.
- Sinisten dozuenez
zutik zaitetz jarri.
- Jainko-Seme zarala
deutsugu igarri.

3. - “Jesus, erruki gutaz”
deika nortzuk dira?

- Legenardun talde bat
hor datoz, begira.
- “Garbi geldi zaitetze,
Aita erruki da”
- Eskerrik asko, Jesus,
hau da poz-distira!

4. - “Emoidazu edaten
mama asegarri”

- Zeuk jarri nozu, Jesus,
neu zure egarri.
- Bizi-iturria Nigan
Aitak deutsu jarri.
- Gaurtik neuk emongo dot
Jesus, zure barri